

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Xabier Zubizarreta Lasagabaster
Txiron*

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa (1944)*

Aurkibidea



Biografia



Aretxabaletako Durana kalean jaio zen 1944an. Aitak, Izurieta auzoko Olabenekoa, harrobi bat ustiatu zuen urteetan; ama, berriz, Aozaratza auzoko Artabe baserrikoa zen. Xabier 3 urtetik 8ra bitartean Artabe baserrian bizi izan zen. Auzoko eskolan ikasi zuen kalera etorri zen arte. Eskoriatzako maristetan urtebete, Donostiako "Misioneras del Sagrado Corazóneko" mojekin beste urtebete, lau urte Eskoriatzako marianistekin eta Logroñokoekin beste urtebete ikasi zuen. Elorrión nobiziatua egiten hasi eta urtebeterako botoak hartu zituen. Handik Zaragozara joan zen eta han erabaki zuen fraidegaitza etetea. Gero Arrasaten ezkondu zen, Intxausti baserriko alaba batekin. Bi seme-alaba dituzte. Arrasateko alkate izana da urte askoan.

Zintak

ARE-033

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-05
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elxepuru, Juan Martin

ARE-034

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-05
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Elxepuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Aretxabaletako semea

- **Erref:** ARE-033/002

- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Xabier Zubizarreta Lasagabaster Aretxabaletan jaio zen 1944ko urriaren 18an. Aita Isurieta auzoko Olabeaga baserrikoa eta ama Aozaratzako Artabe baserrikoak zituen. Artabe izenaren historia apur bat egiten du.</p>

Transkripzioa

- Xabier Zubizarreta Lasagabaster.
- Nun eta noiz jaixo ziñan?
- Jaixo ba Atxabaletan, hamentxe Durana kalia hogeta hamahiruan, milla bederatzirehun eta berrogeta lauan, berrogeta lauko urrixan, urrixan hamazortzixan.
- Aitta-amak nunguak zittuan?
- Aitta ta ama bixak atxabaletarrak.
- Kalekuak?
- Ez, bata bez. Aitte hemengo Usittakue (Izurieta) Usittako Olabenekue.
- Usittakua?
- Bai, Izurieta da jatorrizko izena baiña guk Usitta betik esaten dou. Usittako Olabenekue aitta. Eta ama Lorentxa Lasagabaster Billar. Ama Azatzako (Azaoraza) Artabekue.
- Artabe. Horrek badauko zerikusirik etxe honen izenakin?
- Ba zerbait dirudienez bai. Artabe, Arratabe moruen. Ha be seguru asko jatorriz Arratabe izango zan. Nunbait hori ez dakit, e, hor kantu bat badau, sasoi baten billa ibilli nintzen honek Azkuek bildutako "Cancionero" zera horretan, eta hor agertzen da Otalako emakume bati, ez dakit, Maritxu eukene izena, kantu bat jaso utsen hari, bat edo bat baiña gehixau, eta kantu baten erreferentzia bat eitten dau Arratabeko ez dakit norena, eta dirudienez Artabeko etxie be euren zan. Otalakuek badakizu zera zien, jauntxo edo.
- Han torria eta...
- Hori da. Horretxek die, oin Kaja Laboralak dauken etxe hori. Eta erreferentzia bat eitten dau Arratabera. Osea ke garai baten igual seguru asko izengo zan, zerikusixa euko eben. Gero ez dakit apelliduekin lotura hori zela ingo zan edo ez zan, baiña bueno.

2. Aozaratzako eskolan ikasi zuen

- **Erref:** ARE-033/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:37. **Bukatu:** 00:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gerraostean ez zuten goserik pasatu. Xabier kalean jaio zen. Aitak harrobi txiki bat zuen. Lan-istripuan zauritu eta Artabera joan ziren. Bertan hasi zen Xabier eskolan hiru urterekin, eta auzoko eskolan jarraitu zuen zortzi urte izan zituen arte. Hiruzpalau maistra izan zituen; maisurik bat bera ere ez.</p>

Transkripzioa

- Zu gerra ostian edo gose (denporia) akabaitten edo hortxe jaio ziñan.
- Bai, guk gose-goseik ez gauen pasau. Eskasidadie igual bai baiña goserik ez. Klaro, ni jaixo kalien ein nitzen baiñe gure aittek kantera txiki bat euken hor Arbizelain, oin justo ointxe autopistiek dana desegin dau, harrapau ein doskulako erdi-erdixen, baiña. Hor kanteratxo bat euken aittak eta kanteran eitten euen lana, eta halako baten istripu bat euki euen, errebentau ein utsen zer batek, explosibo batek errebentau utsen pentsaurik ez euela funtzionetan fan zan berriro garbiketan ataraten edo ta justo hortantxe salto eiñ utsen da bota euen harri tta lokatza ta gizon danak fan zien goittik behera. Zaurittu ein zan.
- Bertan geratu zan bera?
- Ez, ez. Zaurittu ein zan nahiko grabe ta orduan ba amak aitte ospitalera eruen bihar eta egun batzuetarako eruen nindduen Artabera, bere etxera, amandrien aman etxera. Orduen ba han nengola ba eskolara bialdu nindduen, orduantxe hasteko, hiru urte ein barik ondio. Auzoko eskolara, bai, eta bueno, hasi-nintzen-hasi nintzen-hasi nintzen, azkenien han geratu nintzen auzuen. Eta sarri etorten nintzen kalera eta hola aitte ta aman etxera, baiñe zortzi urte pasau arte edo auzuen hasi nintzen ni, aittajun-amandrien basarrixan. Kalera etorten nintzen sarri, baiñe gehixao auzuen egoten nintzen hemen baiño, kalien baiño.
- Eta hori ze auzotakua da?
- Azatza. Aozaraza ifintten dau izena baiña guk beti Azatza.
- Goguan daukazu hango maixuak eta?
- Bueno, guk han maistrak euki gittuen. Maixurik ez geuen bat be euki. Maistrak euki gittuen, eztakit, hiru, lau edo bost. Ni hiru urtetik zortzi urte bete arte egon nintzen eskola hartan eta, eztakitt, urteko bat ero gutxi gora behera euki geuen.

3. Maistra errepublikazalea eskolan

- **Erref:** ARE-033/004
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:08:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Zamoratik Francok desterratutako Esuperancia izeneko bat izan zuen lehenengo maistra Xabierrek. Maistra hauek "interinoak" omen ziren. Ikasturte batean bi maistra ezberdinekin ere ibili ziren. Aretxabaletako Bengoatar maistra bat ere gogoan du. Oroimen ona gordetzen du Aozaratzako eskolatik. Gaztelaniaz ikasi arren, euren artean euskaraz egitea libre zuten.</p>

Transkripzioa

- Egon zan maistra bat Esuperancia eukena izena, eta zamorania zan. Etorri zien hona Atxabaletara hiru anai-arreba, hirurak maistruak, eta euren gurasuak be uste dot maistruak izandakuak ziela, zamoranuak. Eta entzunde daukatenez, hola familixa errepublikanokue edo ei zien, eta eztakit ba nik erdi zigor moruen edo Francok desterrau moruen ein zittuen honutza.
- Euskal Herrira?
- Bai. Eurak zamoranuak izenda. Eztakitt, hori da entzunde daukatena.

Orduen anai bixak kalien egon zien, hemen Atxabaletan kaleko eskoletan egon zien maixu eitten, eta arrebie, Esuperancia hau, Azatzako gure eskolara bialdu euen. Eta ha izen zan nik gogoratzen doten lelengoko maistrie. Maistrie, baiña guk señoitie deiketan gutsen. Gure artien zan señoitie. Eta ha egongo zan bi urte edo hiru igual. Eta gero denpora..., nik uste urte baten be bi bider aldatu eñ oskula maistrie. Zien interinak. Interina moruen etorritte maistra bat. Bat akordetan naz zala Atxabaletako kaleko neska bat, Bengoa, Benito Bengoa, Benito Bengoan alaba bat, baiñe enaz akordetan izena. Orduan ba hoixe, nik eskolan ein nittuen ba zortzi urte arte, eta bueno, han ibili gintzen. Nik rekuerto nahiko ona daukat, oroimen ona daukat eskolakue, maistra honek, bereziki Esuperancia honek. Bueno, guk “Supertxo” deiketan gutsen.

- Supertxo?

- Bai. Gure artien zan Supertxo. Berai ez, baiña geure artien Supertxo. Ba nik uste dot honek tradiziñoz nahiko zera zala, etzan hola Francon garaiko beste maixu askon moruen, etzan hola ba esan daigun eskubitar edo autoritarixue edo etzan. Eta guri euskeraz berbetan itxi eitten oskun gure artien eskola barruan. Berakin dana erderaz eitten gauen, erderaz ikasi gauen berakin. Guk euskeraz han auzoko gehixenok garai hartan euskeraz bakarrik eitten gauen eskolara faten gintzenian, orduan garai hartako gehixenan moruen. Eta ni akordetan naz gure artien hola euskeraz da problema barik eitten gauela, ez gauela eukitten zigorrik.

4. Eguraldi onarekin eskola gutxi

- **Erref:** ARE-033/005
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:08:26. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Kaleko lagunak zigortuak izaten ziren eskolan euskaraz mintzatzeagatik. Xabier ez dute inoiz jo bere eskola urteetan. 20-25 ikasle izaten ziren elkarrekin, neska eta mutil. Negu partean ikasle gehiago elkartzen ziren udaran baino, baserriko lanengatik. 12 urtetik gorako ikasle gutxi joaten zen eskolara. Zortzi urtera arte bizi izan zen Artabe baserrian, baina gerora ere 14 urte izan zituen arte oporrak han igarotzen zituen.</p>

Transkripzioa

- Ni akordetan naz be bai kaleko lagunak esaten euen eraztunena-ta, zela inposatzen eutsien hori erderaz berba ein biharra ta, eraztune bata bestiai pasetan eta holako gauzak eitten, eta gero zigorrak eta ifintte utsien da eskue ifiñi eraiñ hola ta jo ta zera ta holako gauzak. Baiñe guri han iñoiz eztoskue...

- Zortzi urte arte eztozu zigorrik ezagutu?

- Ez, nik eztot ezautu holako zigorrik eta ezta iñoiz jo nauenik be ez eskolan.

- Suerte haundixa.

- Bai, suerte haundixe.

- Neri pasau xat.

- Bai, seguru, gure garaixan hori zan, arau normala zan hori, jotie, belarrondokuek emutie ta hori zan, bueno.

- Eta eskolan zelan egoten zineten, neskak eta mutikuek elkarrekin?

- Bai, danak batera, bai. Ha zan unitarixue.

- Goguan daukazu zenbat izango ziñaten gutxi gora behera?

- Ba egongo gintzen hogeia, hogeta bost egongo gintzen gehixen egoten gintzenien. Gero negutik udara aldie egoten zan. Zenbat eta nausixauek faltau gehixau eitten euen, udan, bereziki. Neguen egualdi txarrakin ba hala!, danak eskolara. Egualdi onakin ba hasi bedarretan, edo basora fan bihe zala edo ittaurren ein biharra edo ganauzain edo hau edo hori. Betik egoten zan zerbaite eitteko, ezta, baserrixetan. Eta bereziki hola apur bat nausitzen hasittakuak, hola hamaika-hamabi urtetik aurrerakuak ia gehixao faltetan euen. Eta nik uste dot eskolan hamalau urtera arteko baten bat egon izen dala, baiñe hamabi urtetik aurrera ia han eskolan etzan iñor (egoten); normalien, e, gehixenak hamabi urte arte edo hola.

- Zuri zeuri tokau izan xatzun eskolara ez fatia lana egiteagatik?

- Ez. Bueno egunen baten igual, egun raron baten, baiñe ni normalien beti eskolara bialketan niñuen. Ni lobie nintzen han, enintzen... Baiñe, igual dutso, hala ta be ni eskolara bialketan nindduen beti, hori bai. Oiñ, eskolatik urtenda gero bai, eskolatik urtenda gero basarriko lanak itten lagundu biharra, hori bai. Nik basarriko lanak umetan danak ikasi nittuen eitten. Esan gura dot ba igeteixe ebalten, segie, atxurre, aixkorie...

- Zortzi urtekin?

- Bai, bai. Zortzi urtekin? Honbre, ganajatekuek eitten bai. Bueno, zortzi, gero bakaziño denporetan eta beti hara fan izen naz hamahiru-hamalau urte arte. Igual zortzikin segan ez neuen ingo, baiñe segie hartute ordurako bai. Segie hartute bai, seguru. Gaur egunien horrek gauzak ez die imajinau be eitten.

- Segia zutik ipinita zu baiño haundixaua izango zan, ezta?

- Ba, izengo zan baiñe; hantxe. Ez, igual norberak hartu eta zerak eitten hasi, gizonkerixek eitten. Baiñe gero ia beratzi hamar urtekin nik uste dot han auzoko danok ingo gauela. Neskak be bai segan. Esan gure dot / gurot/ ganau jatekuek eitten eta holako gauzak eitten. Segan saillien ez dot esaten, bedar ebaten ia hori gauza zaillague da baiñe gauza samurrak eitten bai, eta aixkora be, bueno, aixkora be etxerako egurrek eitten eta ume-umetatik.

5. Donostian moja eskolan

- **Erref:** ARE-033/006
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:13:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>Lau behi, idi pareia eta astoa zeuden Artabe baserrian; baita txerri, hegazti, eta abar. Ardirik ez zuen ezagutu Artaben. Ez omen zegoen ardi askorik garai hartan Aozaratza auzoan. Auzoko eskolatik Donostiako moja eskola batera bidali zuten, fraidetzarako prestaketa bezala. Beti etxe barruan sartuta egoten ziren eta diziplina gogorra ezartzen zuten mojek. Han pasatako urteaz ez du oroitzapen onik.</p>

Transkripzioa

- Zenbat ganau zeukatzuen Artaben?
- Han egoten zien normalien gutxienez lau behi. Lau behi, idi-parie, asto bat eta gero ba txahalak, egoten zien txalak, bi, hiru, segun.
- Eta hegazti eta koneju?
- Bai, bai, konejuek be bai, hegatzixek be bai.
- Oiluak eta?
- Oilluek eta konejuek gehixen be. Gero txarrixek be bai. Txarri bat, bat behintzet betik hazten zan.
- Eta ardirik?
- Ardirik ez, gurien ez, gurien ezta, nik ez dot ezautu sekule. Nik uste lehenau egon izen diela, han baserri gehixenetan eukitten zittuen artalde txikitxo bat, hogeï, hogeta hamar edo berrogeï ardiko taldetxo bat ba bueno, ba igual zelai baztarrak eta baserrixe garbiketako aldi baten eta gero apur bat basorutz bialdu eta hola. Baiñe gure garaixen ia ez, nik ez dot ezautu. Eta han Azatzako basarri gehixenak ez eukien ardirik gure garaixan.
- Orduan zortzi urte arte Artaben eta gero kalera etorri zinen handik?
- Ez. Artabetik..., bueno nik neuken, hemen Eskoriatzan euzen marianistak. Eta nik osaba bat neuken, neure aittajaunen anai bat fraillie zana hor. Eta harek gure euen ni frailletara eruetia. Eta orduen ba ama konbenzidu euen hara fateko prepartetako, lelengo preparaziño moruen bialketie Donostiako monja batzuen konbentu batera, han urtebete eitten, ba ez dakit. Hobeto ikesteko gauzak edo gure dana. Eta han euki nindduen urtebetien, erdi sekuestrata egon nintzen han. Oso oroimen eskasa dauket hangue, oso disziplina...
- Ze monja zien?
- Zien "Misioneras del Sagrado Corazón", uste dot deiketan ziela. Eta eskolie, etxie eukien hantxe Paseo de Miraconcha uste dot zala. Aldapetako aldapan erdi inguruen eskumetara hartzen zan holako kale estutxo bat eta gero handik jetxi eitten zan berriro Kontxara, Kontxa parera. Eta bittarte horretan euzen bi konbentu, eta bat zan gure hori, monja honeiña eta gero euen beste bat ez nazena akordetan zeintzuk zien, ze monja zien.
- Han orduan gogorra?
- Han urtebete. Buu!, han bai. Han beti disziplina oso gogorra, betik etxe barruen sartute. Klaro, ni ohittute nenguen baserrixen basora faten.

6. Donostiatik Eskoriatzako maristetara

- **Erref:** ARE-033/007
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:16:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Mojen eskolan zegoenean baserriko lanak eta auzoko lagunekin egindako jolasak zituen gogoan. Han urtebete pasatu eta gero, etxera itzuli eta maristen eskolan hasi zen. Lehenago bainuetxeak izan ziren eraikuntzan zegoen maristen eskola, beraiek "Sorbona" deitzen ziotena. Urtebete egin zuen egunero baserritik eskolara etortzen.

Transkripzioa

- Pentsaizu, uda denporan bedarrak eta batuta gero geuken zelai bat han Kurtzeberriko maldatan, da urtero ba bedarra hazten zanian bedarrak ebai, igertu, ekarri, ta gero abelgorri bat geuken, behigorri bat geuken hara erueten geuena beti txahala eraitteko han eta gero eta bixak ekarri. Eta ni ixte egunero faten nintzen eskola ostien hartu hola arta [samar?] batzuk eta behixa nundik ebillen ikusten. Egundoko abenturak eindda nao ni behin. Eta behixe topetan askotan salto einde be, horrek bastante basatixak izaten die eta igual sasi gaiñetik salto ein ta alde eindda eta topetan eta berriro ekarri eta holakuak eitten askotan. Eta klaro, holako giro baten, gero lagunekin be beti jolasien auzuen, eta gero handik Donostiara fan eta han monja batzuekin egun guztien erreziek eta ez dakit zer eta badakit zer, dana reglamentua disziplina, ezin gauen berba ein dormitorixuen. Bueno, dana hola.

- Euskeria inundik be ez, ezta?

- Ez, ez, euskeria entzun be ez. Ezebez. Ni ez naz akordetan beste euskaldunik euenik be. Baten batek jakingo euen euskeraz seguru asko, baiñe hain zan gauza debekatue edo, berez hala asumidu gauen, nik ez dakit; ni ez naz akordetan han sekula euskeraz ein nauenik iñokin.

- Zer zendeten, mutilak bakarrik?

- Mutillak, mutillak bakarrik. Mutikuak bakarrik han. Urtebete hantxe, eta gero handik ekarri nindduen hor maristetan bertan euen auzoko umiendako eskola bat euen, eta tiok horra eskolara fateko. Eta hor ia eskolan maristek eurak emuten zittuen klasiak, maristetako profesoriak emuten zittuen klasiak. Eta eskoliai deiketan gutsen Sorbonie.

- Sorbonia?

- Sorbonia deikuten gutsen, bai. Hori zan Eskoriatzako eskolia?

Maristetan, oin Almen dauen lekuan hor behien euan balnearixue, antziñan balnearixue izendakue-edo.

- Atxabaletan ala Eskoriatzan?

- Zan justo mugia baiña Eskoriatzako terrenua zan. Justo-justo muga, hortxe Ederlan parian, oin Almen dauen lekuen. Almenen pare-parian. Almen oin dau gorao. Eta Almenen pare-parien behien euen hori balnearixue. Balnearixue ta euen futbol-zelaixek eta jardinek eta enfin, egundoko terreno, finka ederra zan hori.

- Eta zuek Sorbonan.

- Sorbonie. Sorbonie zan ba euen, eraikuntzak euen albo baten euen elixa bat, elixatxo bat, eta gero elixien onduen euen beste holako eraikin txiki bat, eta ha izeten zan gure eskolia. Urtebetien ibilli nintzen egunero-egunero baserritik horra fan da etorri eitten. Bazkaitten faten nintzen kalera, aitta ta aman etxera, barriro etorri, atsaldien eskolie ta gero baserrire. Lo eittera baserrira. Klaro, han ganauzain ta ein bihar izeten nauen. Orduan ba bueno, hor beste urtebete ein nauen.

7. Logroñotik Elorriora eta gero Zaragozara

- **Erref:** ARE-033/008
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:16:57. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Hurrengo urtean fraide bidali zuten marianistetara. "Postulanteak" deitzen zieten lehen ikasturteetako ikasleei. Lau urte Eskoriatzan eta beste urtebete Logroñoko Villamedianan ikasi zuen. Handik Elorriora joan zen urtebeteko nobiziatua egitera; hemen kastitate eta obediencia botoak hartu eta handik Zaragozara goi mailako batxilergoa egitera.

Transkripzioa

- Ta gero hurrengo urtien fraille. Hurrengo urtien ia fraille bialdu nindduen. Hori, beratzittik hamarrera eingo nittuen hor Sorbonan eta gero hamarretik aurrera...
- Baina orduan ia marianistekin, ezta?
- Bai. Hori ia zan "postulante", postulantiek. Hori zan postulantiek deiketan jakona.
- Guk Arantzazutarrei fraillekumak esatia moduan.
- Bai, igual-igual. Lau urte ein nittuen hor, Eskoriatzan eta gero urtebete, Logroñon eukien beste..., Logroñon hiriburuan onduen euen beste herritxo bat, Villamediana, eta han eukien beste finka bat, eta han beste urtebete ein gauen.
- Hori Logroñon?
- Logroñon, bai. Eta handik gero Elorrixora. Elorrixon... Ordurarte ikasketa zerak ein gittuen, ikasketa regularrak. Ba batxilleratue, orduko batxilleratue. Eta gero Elorrixoko urtie zan ia ba frailletzarako prepartetako, nobiziaduen moruen edo han sartzen giñuen eta euki giñuen han urtebetien nobiziadu moruen. Han ikasketaik ein barik. Han zan ia gehixao erlijio kontuek, elixie, eskola euren barruko estatutuek eta holako gauzak. Ikasi be eitten gittuen gauzak, jarraipena eitten gutsen gauzei baiñe bereziki zan hortara, behintzat asko be gehixao dedidaute hortara bestie baiño. Eta gero ia hori bukatu eta hor ia eraitten oskuen botuek. Orduen zan "castidad, coto de castidad", eta "pobreza, castidad y obediencia". Baiñe nik uste dot hor eraitten eskuela bi boto bakarrik: "castidad" eta "obediencia". Eta "pobreza" ba ez geuken ezer eta ezin ein.
- Botuak be lelengo urtetan danak?
- Ez, ez, hori ia Elorrixon gengozela, e. Bai, Elorrixon bukaeran euko nittuen nik hamaxetik hamazazpi ein barik oindio, ein gittuen lehenengoko botuak. Bueno, lehenengokuek eta azkenak. Gero ia Zaragozara. Zaragozan ein gauen batxilleratue. Orduen zan "Bachillerato Superior". Frailliek eukien akordio bat eindde Hezkuntza Ministerixuaz edo gure danaz, eta esamiñak eurak eitten zittuen, osea, guk kanpuen ez gauen esamiñarik eitten. Esamiña guztiek urtero-urtero frailliek eurek eitten oskuen eta notak gero eurak eifintten oskuen eta dana. Eta azkenengo urte hortan ia in bihe geuen ba rebalida bat moruen, ta zan "Bachillerato Superior y Reválida" deiketan jakona.

8. Utzi egin zion fraidegintzari, nekatuta

- **Erref:** ARE-033/009
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Batxilergoa bukatu eta Teruelera joan zen gogo-jardunetara. Hemen erabaki zuen fraide ikasketak uztea, eta zuzenean itzuli zen etxera.

Transkripzioa

- Eta hori zan Zaragozan. Eta bueno, urtien ziher ein gauen ikastaro osue, ikasturte osue, eta azterketa hortarako hilebete bat falta zala edo akordetan naz etorri jakuela oharren bat edo esanaz, zelan zan, "Espíritu Nacional" edo holako asignatura bat euan orduan falangistak emuten...
- "Formación del Espíritu Nacional".
- "Formación del Espíritu Nacional". Hori da. Eta azterketak eñ ahal izeteko, batxilleratuko azterketan eñ ahal izeteko, lelengo bestie aprobau lelengo biher gauela. Eta hillebeteko epian ipiñi oskuen hamabi gai ikesteko eta hamabi gai horretatik bat galdetuko oskuela ta. Eta klaro, frailiek esan oskuen, jo!, ezpozue hori aprobetan eztaukotzue batxilleratoik eta benga. Eta hasi gintzen danok eakolan, akordetan naz, hogeta bost gintzen, orduen akordau eitten naz hogeta bost ginela ze danok aprobau gauen. Eta bueno, buruz ikasi gittuen danak, e. Gai guztiak buruz. Ez gekixen ze esaten gauen be, baiña buruz. Eta ni akordetan naz "El trabajo" tokau jatela. Hasi, tarrrrrrrrr eskribidu eta kalera danok. Eta atera gauen eta gero batxilleratua ein gauen, eta gero ba batxilleratue bukatuta geero, urtero eitten gauen baiña urte hartan be bai berriro Gogo-jardunak, orduen "Ejercicios espirituales" deiketan zana. Eta egon nitzen Teruelera fanda, Terueleko Alcañiz herrixen han etxe baten sartute.
- Hori batxilleratua bukatuta?
- Bai, azterketak bukatu ta gero. Ta han ba gogo-jardunetan. Ni ordurako ba Zaragozan eta ba han gure kolegixo hartara ba etorten zien neskak eta hola, eta gu ia ordurako gengozen apur bet aztoratute, eta ia kantsaute, uff, higuinddute ia, hango bizimodue etxaten bape be, gero ta gutxiao gustetan jaten. Eta orduen esan ein nutsien frailiei, bueno, ni hamen enaz, enaz aurkitzen da. Frailiek ondo hartu usten hori, ez usten ezelako, aparteko enpeñorik eta ipiñi zertzeko. Ta bueno, ondo lagundu usten. Abarie zan gaiñera bera. Marianistak danak ez die abarie, batzuk bakarrik dia abariak. Ta bera abaria zan, Don Emilio deiketan zan. Majue, oroimen ona dauket berie. Eta bueno, harekin egon nintzen egun bat edo beste han berbetan eta horri buruz, hau dala eta ez dala, ta bizimodue eta hau ta hori, ta erabaki nauen itxi ein bihe nauela.
- Zaragozan hartu zenuen erabagixa ala Teruelen?
- Bai, Teruelen bertan.
- Zenbat denpora Teruelen?
- Ez, han astebete edo holakon bat. Atebeteko zera. Ba ha izen zan azkeneko rematie, ez. Eta bueno, handixik berttik zuzenien etxera.
- Zela esan dozu "Ejercicios Espirituales" euskeraz, gogo...
- Gogo-jardunak. Bai, gaur egunien hola ikesi dou. Lenao erderaz "Ejercicios Espirituales" esaten guntsen.

9. "Porrusaldaka" eta "kakatorreka" jolasak

- **Erref:** ARE-033/010
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Auzoko eskolan "porrusaldaka", "kakatorreka" eta "kakapoteka" jolasten zuten. "Kakatorreka" jolasaren nondik noarakoak azaltzen dizkigu Xabierrek.</p>

Transkripzioa

- Aittatu dozu len auzuen jolasien auzotarrekin hau eta bestia. Gustauko xaten jakittia auzuan ze jolas egitten zeuen eta gero eskolan jolasok aldatu egiten ziren edo.

- Auzuen eitten gauen, bueno, bat zan egualdi txarra eitten euenien "porrusaldaka". Baiña enaz akordetan oso zela zan exaktamente jokue. Ni akordetan naz eskolien bebarruen zala leku bat gero auzoko juntan eta hantxe eitten zien, eta albo bixetan euzen hola bi banku, egurrezko bankuek hola orma kontran albo bixetan. Eta akordetan naz gu umetxuek hanka bat banku gaiñien ifiñi eta bestie lurrian zala eta bestekaldekiekin eztakitt ze gauza eitten gauen. Holako joku raro bat zan. Porrusaldaka deiketan gutsen horri. Baiñe ezin naz akordau zertan zetzan jokui. Bakarrik hoixe akordetan naz. Hori zan jokutxo bat hola eitten geuena eurixa zanien eta hola kanpora ezin urten eta eztakitzu, batzutan. Gero beste joku bat zan "kakatorreka" deiketan guntsena.

- Kakatorreka?

- Bai. Bat zan kakatorreka eta bestie zan kalepoteka. Eske gu han basarritarrok badakitzu, satsartien ibiltzen gintzen ba ta. Kakatorrekakue zan, elixpeien eitten geuen, geuken bi babesleku moruen. Elixpeie zan nehiko luzia eta punta bakoitxien geuken babeslekue. Eta orduan lurra harrizkue zan dana, arloza haundixek euzen lurrien eta geukan jakiñeko leku baten, arloza illera batetik atzerakue zan babesa eta handik aurrerakue ia ba jokuen urteteko. Eta orduen ibiltten gintzen ba batek urten itten euen torre hortatik, torrie deiketan jakon uste dot; urten, orduen haren bille bestekaldetik urten bihe euen beste batek. Eta orduen batek tentau eitten auen bestie eta leku batetik bestera pasa eta hola ta. Zure helburue zan ahal bazauen zeu bestiek harrapau barik zeu bestien torrera sartzia. Baiñe zu harrapau bihe ziñuen zure bille urten euenak bakarrik, beste iñok ez. Eta aldiz, berak harrapetan baziñuen eruen itten ziñuen bere torrera. Eta zu orduen geratu bihar ziñen bestien torrekko arraia zapalketan hankiaz eta esku luzatuta aber zure taldeko norbait etorten zan zeu libretara. Eta alderantziz igual. Orduen hori jokui itten zan ba danak alde batera harrapau arte edo gure dana. Eta gero zu sartzen baziñen bestien torrien liberau eitten zittuen bestiek. Edo ikutu eitten bazutsen azkenengo euenei heldute.

- Orduak holaxe, ezta?

- Bu!, ba errekreo guztie igual, hasi horrekin da. Hori zan joku bat.

10. Kakapoteka jolasean

- **Erref:** ARE-033/011
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:25:52. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Kakapote jolasa azaltzen digu hemen.</p>

Transkripzioa

- Eta kakapoteka?

- Kakapoteka zan puxka bat diferentie. Bueno, hori zan han eskola eta elixa aurrien euen holako lautaratxo bat dau eta adokiñau, errekarrixen moruen zien baiñe adokiñau moruen euen dana. Da euan oso, bere garaixan txukun einddakue, zan hola illeratzuekin ifinitta harrixek eta oso politte. Eta erdixen euan harri bat bestiek baiño haundixaue zana, eta geroztik be makiña bat bider fan izen naz, oiñ uste dot kenduta dagola ia dana. Harrixak ikusten, behin baiño gehixotan komentau izen dou: han harrixen ifintzen zan pote bat, pipar potia edo holako... Eta pipar pote hori zozketatu eitten zan ume guztien artian edo jolasien eittia gure euenen artian zeñnek ein bihe euen harri hortatik hasitte, gero gorde eitten zien guztiak topetan. Eta gero topau eta bakotxa salatu ein biha zan potiaz: "pla-pla-pla! eztakit nor, pla-pla-pla badakit nor". Bueno, orduen lelengo ze eitten zan ba, norbaittek ba, normalien inddar gehixen eukenak hartu potie, harrike bota eta tokau jakonak ha potie billa fan eta ha ekarri eta hiru bider jo bittartien beste danak gorde eitten zien han elixa inguruen eta eskola inguruen eta han inguruetan. Eta ba orduen bera hasi bihar zan topetan, jentie topetan. Gu ibiltten giñen (...) hemendik eta handik eta bata bestia engaiñetan eta hola. Eta baten bat ikusten (...), eztakit nor, han dau. Pan-pan-pan!, igual ondo asmau eitten euen edo ez euen asmetan. Beste norbait zalakuen izena aldrebes esaten baeuen, barriro danak gorde eitten zien, topauta euzen danak berriro gorde eitten zien. Eta gero euen beste gauza bat eta zan... Klaro bera jentie harrapetan faten zan, jentie topetan faten zan, da salatuaz, eta harek ia urten ein bihe euen bistara, baiñe norbaitek konsegiduten baeuen ha bille ebillen bittartien beste leku batetik urten eta potie ostikoka jotie, barriro danak librau eitten zien eta barriro danak gorde eitten zien. Klaro, euen problema bat, billa ebillena ibiltten zan normalien harrittik oso urrin fan barik. Baiña zu faten baziñen eta potie oso urriñ ez bazeuen botaten, bestie etorri eitten zan potie harrapetan auen eta zeu salatzen ziñuen. Ze ondio gordeteko lekuri etzeukazun, ez. Oso politte zan jokue. Eta hortan be askotan ibiltten giñan. Horrek bi jokuek zien hola igual gehixen eitten gittuenak.

11. Txirikiletan ere jolasten zuten

- **Erref:** ARE-033/012
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:32:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Txirikiletan ere jolasten zuten. Azaro aldean, Gabonak aurretik bakarrik egiten omen zen jolas hau. Jolasaren zehaztasunak ematen ditu.</p>

Transkripzioa

- Gero euen beste joku bat txirikillan, txirikilletan. Txirikilletan itten gauen, hori sasoin baten eitten zan bakarrik. Nik uste izaten zala udazkenien, hor zemendi aldera izeten zan, zemendixe edo hola Gabonak aurretiko garai

hortan, oker ez banago. Eta hori izeten zan ba Azatzako elixostien, antziñan dantzalekue deiketan utsen lekue, ba han elixiek atzekaldetik euken holako bi horma, euskarri moduen eindde holako bi horma osagarri, ez. Bai, eta hareik bi horma horreik angulo baten geldiketan zien, eitten auen holako uekotxo bat, ezta. Horri deiketan gutsen, horri be torrie deiketan gutsen. Orduan txirikilletan eitteko eitten zan, eukitten gittuen, mazie deiketan gutsen egur bat, izeten zan ba eztakitt, hirurogei zentimetro edo gutxienez euko auen, segun. Mutiko txikiñauak zienak txikiñauak eta haundixak haundixauak. Etxetik eiñ eta ekarri eitten gauen. Gero txirikillek zien ba holako egur batzuk, punta bixek zorrozute, eitten zien gaiñera...

- Begixa zulaketako...

- Ja, ja. Begixek edo harrapetan auena. Eta eitten zien normalien, eskolan egoten zien, normalien mutikuek izeten zien zertxuenak, hazitxuenak edo apur bat jefe moduen eitten auenak. Orduen bixek buru, talde bakotxeko buru moduen eitten auen, eta egunero-egunero eitten zan, bakotxak taldie elejidu eitten auen. Aukeratu eitten auen euzenen artien taldia. Baiñe taldian txandie zeñek lelengo aukeratu erabakitteko eitten zan txirikilla bat lurrien ifiñi, beste bat hola kurtzaute gaiñian, eta gero eitten zan arraia bat igual bi metrora edo hiru metrora, arraia bat lurrian; eta maziaz txirikille puntan jo eta bueltaka bota hara eta txirikille hurbilen ixten auenak ha hasten zan aukeratzan. Eta hark normalian aukeratzan auen ba onena, indar gehixen eukena edo takarradan gehixen eitten auena edo gure dana. Eta orduen hasten zan ekipo batekue, han torre horretan sartzen bat eta hartzen auen mazie, txirikillie hartu eta txirikillie jo eta bota eitten zan ahal danik eta urriñen. Eta beste taldekuek egon biher izeten gauen, edo izeten zien, jersie edo eskuetan hartu eta txirikillie aidien harrapetan. Ha txirikillie faten zan bueltaka aidien, behin baiño gehixaotan akordetan naz ba bekokixen edo begixen edo jota ta holakuek eindde behin baiño gehixotan. Kontue zan ba txirikillie ahal bazan aidien harrapau bihe zala. Aidien harrapau eta gero... Klaro, aidien harrapetan bazauen hurrao harrapetan zalako. Bestela lurrera jausten zanerako ba urrinago faten zan. Orduen ein biher zauen harrapau zauen lekutik txirikillie eskuaz hartu eta ha torre barrure sartzen zauen. Eta torrien euenak eskubidie euken maziaz ahal baauen txirikillia joteko etzein sartu barrure. Bueno, eta orduan horren arabera ba gero puntuek izeten zien. Puntu bat edo bi edo. Kontetan faten zan puntuek. Eta puntuek kontetako sistemie be eztot gogoratzen oso ondo, baiñe nik uste dot izengo zala ba sartzen etzan bakotxien botaten euen taldiek punto bat izengo auen eta gero zuk lortzen bazauen sartzie barruen orduan eitten zan aldatu: beste ekipue sartzen zan torrera eta bestiek faten zien billa. Eta alderantziz ba puntuek kontetan, ez. Ta bueno ba holaxe. Hola ibiltten gintzen.

12. Baserriko lanak eta jakiak

- **Erref:** ARE-033/013
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:32:07. **Bukatu:** 00:35:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Eskolako jolas-orduetako jolasak. Eskola bukatu bezain laster, antxintxika joaten zen bakoitza bere baserriko lanetara. Indabak, barazkiak, esnea, taloa eta morokila eta honelako janariak ziren egunerokoak. Txerriak ere izaten zituzten; igandetan garbantzuak jaten zituzten okelarekin. Gose kontuak entzun egin zituen, baina berak ez zuen halakorik ezagutu. Ezta errazionamendurik ere.

Transkripzioa

- Eta jolas horreitan eitten zebeñ eskolan ala eskolan beste jolas batzuk egoten zien?
- Eskola barruen? Eskolan jolasik ez. Eskolan...
- Errekreetan eta?
- Horrek gehixenok errekkreetan eitten gittuen, e. Gero errekkreo ostien ia eskola amaitzen zaniñ, normalian bakotxa aide etxera. Klaro, beti izeten gauñ ba ganauzain ein biharra edo ittaurren ein biharra edo eztakit nora fan biharra edo. Beti, ordurako ia goxien esanda edo eguardixen esanda: "Gero etorri aguro ze hau ta hau ein bihok eta". Orduen eskola ostien normalien ez.
- Lehen esan dozu zure ume garaian eskasidadie ezagutu zeuela baiña goserik ez.
- Bueno, eskasidadie esan gurot, beti eukitten gauñ ba janarixe edo, egunero errepikatu eitten zan janarixe. Guk babagorrixek jaten gittuen urtien eztakit zenbat denporatan, ezta. Eta gero tenporadie etorten zaniñ porru-patatak edo leka-patatak edo holako gauzak bai egoten zien, ezta. Baiña gehixen be guk babagorrixek jaten gauñ, babagorrixek txorixomutur bategaz eta urdai apur bat eta esnie ta morokille eta taluek eta halako gauzak. Ba hoixe, etxien txarrix hiltten zan, noizien behin oillon bat hola zahar samarra euenien ha likidau eta haxe jateko, edo altuena holaxe. Domeketan garbatzuek eta okeliaz, okela gixauaz, okela gixauetomatiaz be bai. Ni akordetan naz janarixakin okelia jaten oso txarra nintzela eta sobre todo filetiek jaten. Nik filetiek tragetako eziñezkue zan niretako. Jota sike-sike eindde ixten nauen ahuen filete zatixe, eta nik uste dot zuku guztiek kentsen nutsela baiña gero iruntsi ezin eiñ, eziñ iruntsi. Mizkiña izen nintzen oso umetan. Gero ikasi nauen jaten baiña umetan mizkiña. Eta bueno, nik esan neike goserik ezta hurrik be gosianik, e. Jan ondo, kantidadia nahikua.
- Zeuen aldekorik edo kaleko jenterik goguen daukotzu estu ibilittakuak eta...
- Ez, nik neuk eztauket goguan. Entzunde bai, entzunde kalien ez euela eta basierrixetara etorten ziela eskien eta famelixa artekuei lagundu eta horrek gauzok entzunde sarri baiña neu akordau enaz eitten hola. Honbre, nik badakitt gure aitta ta amak eurak be justo-justuan ebizela, klaro. Ez eukien, e..., egon be gauza gutxie euen ta hori aitta ta ama ziela Atxabaletan euen janari-denda ixte bakarrek langilliek izen zien bixek. Eta gaiñera etxien azpixen euen etxie ta bueno. Esan gurot erreztasun gehitxuao igual eukiela lortzeko.
- Razionamentua euen hor?
- Nire denporan ia ez. Ni ia enaz akordetan razionamentuaz.

13. Kolean lanean

- **Erref:** ARE-033/014
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:35:06. **Bukatu:** 00:38:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Xabierren gurasoek Lasagabaster dendan lanean ezagutu zuten elkar. Ama dendaren ugazabaren ahizpa zen. Ezkondu zirenean, aita harrobia jarri zuen. Harrobiko orduko lan egiteko era bitxiak azaltzen dizkigu Xabierrek. Bere aita min hartu zuen behin, berandututako kartutxo bat bere aurrealdean lehertu zenean.

Transkripzioa

-Zer eukiela esan dozu zure aitta-amak?

-Ez, eurak ibilitta euzen lanian. Eske Atxabaletan euen oin Pagaldaixena deiketan dana garai baten izen zan nire, gure tio baten dendie. Gure Meltxor Lasagabaster, gero Arrasateko Lasagabaster dendia, denda horretako semien da aitte, ezkondu zan nire amaren aizta zarrenakin, tia Mariakin. Nik enauen ezautu be ze nik urtebete neukela hil ein zan. Hola kontatu ustien. Ta kalro, ba orduen ba ezkondu euzen eta ba nire ama aizta bat gaztiaue, hamahiru urte, hamalau urteaz ero ba lanera, eruen euen dendara. Eta aitte be beste baserritik dendara fan zan morroi moduen, eta harek eitten auen bat mutikuen lanak, mutillen lanak. Eta ama ba zerbiduten, mostradorien edo gure dana. Eta hantxe ezautu zien aitte ta ama. Eta gero urtietan ibilli zien ba lanien denda hortan, ezkondu zien arte ta. Eta gero aittek ifiñi auen ba kanterie.

-Eta kanteran min haruta gero ze eiñ eben?

-Gero osatu zan eta jarraitu euen lanien. Baiñe geratu jakon ba eztakit, bi edo hiru hazur apurtuta. Garai hortan ba badakizu, operaziñuek eta eitten zien gaurko aldien zelege eta.

-Lanian segurtasuna be izango zan halakotxia.

-Ezelakoik be ez, klaro. Ezelekoik be ez. Han ibiltten zien ba horman goittik piñu arbola, adarren baten lotu soka bat, sokatik gerrire edo nunbaittera lotu ta goittik behera jatxi eta barrenuaz, eskuzko barrenuaz zulu eitten horman han. Eta igual zortzi-hamar metroko alturatan eta hola, ez. Eta jausi hola bestela berez eztot uste sekula iñor ein zanik, baiña desde luego seguridadia ezelakorik be ez. Eta hori pasau zanian izan zan orduan metxa, ifintten zan zan metxa bat, luzie, metro bikue edo. Ba zulue eitten auen, han sartze auen (kartutxua), sartzen auen, ha atakau eitten zan goittik, itxi eitten jakon zulue, buztinekin eta eztakit zerekin, eta gero ataraten zan kanpora metxie; eta hori metxioi izeten zan ba len horrek tsiskeruok bazien ba putz eindde..., ba holakotxe estiloko metxa bat izeten zan. Metxie ixotu eta astixe emuten otsen alde eitteko eta hori, ez. Eta ni behin baiño gehixotan akordetan naz ba guk han txabola haundi bat geuken eindde zemento armauaz da txabola barrure sartu ta leherketa noiz eiñ arte hantxe zaiñ, ez. Da joten auen danbarrarie ta txabola gaiñien porrrrrrrr, harri pillue, hola harri txikixak, urrin faten zienak, da behien euan kamiñue, euan bakarra orduan, eta kamiñue moztu ein biher izeten zan, klaro, leherketa hori eitteko.

-Kotxeik eta ibiltzen zan?

-Banakie bai, banakie ibiltzen zan, eta baezpada be moztu ein bihar, eta orduan ba langille bat alde batera faten zan eta bestie bestera, eta gure aittek holako tronpeta bat eukan, tronpetatxo bat eta ti-tiil!, joten auen ha tronpetia leherketa ein bihar zanian, eta gero faten zan eta ixoketan auen metxia eta danok txabola azpira. Joten auen eta. Behin hori pasau jakon. Metxiori eztakit ba, denpora gehixao tardau normala baiño, eta ia aittek

pentsau auen itxungi eingo zala eta ez auela funtzionauko, fan zan eta justo hasi zanien baunba! Geratu jakon ba eztaikit zenbat hazur apurtute ta gero gorputz guztien harritxuek. Danak barrure sartute.

-Metraillia.

-Operaziñuan danak ez utsien atara, gaiñera. Akordetan naz gerora ondiok agertu ein jakola azal azpixon harri txiki-txiki-txikitxuek, eta bateon bat berakin eruen auen.

14. Marianisten oroitzapen gazi-gozoa

- **Erref:** ARE-033/015
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:38:57. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Marianistak utzi eta lanean hasi zen Uribarrin, eta geroago kooperatibetan. Marianisten garaiko oroitzapen gazi-gozoa du. Goi mailako irakaskuntza zuten, baina diziiplina gogorra eta errepresio sexuala ere gogoan ditu. Ikasleen jokaera ere puntuatu egiten zuten, gutxiegia lortzeko arriskuarekin.</p>

Transkripzioa

- Zuk hemezortzi urte inguru Marianistetatik urten zebela; eta harrezkero?
- Gero ia ba lanera. Lanien hasi nintzen, Ulgorren hasi nintzen lanien, eta geroztik ba bueno, kooperatibetan eta. Gero ia bizitzak buelta asko emon dittu baiña.

- Eta klaro, zuk eskola urte pillia daukotzu marianistekin. Ze rekuerdo daukotzu marianistekin?

- Marianistena?

- Gustora ibiltten zinen eskolan?

- Bueno. Oroimen gazi-gozue dauket. Oroimen ona alde batetik. Irakasle moduen eta profesional moduen nik uste dot mailla oso ona eukiela, eta guri erakutsi oskuen asko. Bueno, garai hartako metoduekin, asko zan ba buruz ikasten zan asko, baiñe nik uste dot bestelako, erakusten be, ikasten be erakutsi eskuela. Ikesten be erakutsi eskuela. Akordetan naz abare bat euen, aramaixoarra zan gaiñera bera, Ambrosio Bergaretxe, oso gizon jatorra. Geroztik be berakin harremanak mantendu ein dittut bera hil zan arte, larogeta, eztaikit, hamaika-hamabi urtegaz hil zan, eta harek esaten oskun: “Estudiar es aprender las cosas siete veces y olvidarlas otras siete”. Eta hori esaten oskun espliketako garrantzitsuena etzala gauzak buruz ikastie baiño inportantie zelagauzak zela ikesi bihe zan bizitzan, hori ikasi bihe zala. Metodue edo sistemie zala gehixao ikesi biha zana eta ez gauzak eurak. Eta akordetan naz horri buruz eztabaidak eta berba eitten gauela eta hola ta. Zentzu horretan nik uste dot nibel ona demostrau dauela. Baiña eurak euren bokaziñue edo helburue edo esateko moduen irakaskuntza zan, ez, eta horretan nahiko saiatuak zien, erakusten saiatuak izen die. Gero ba, bueno, euen garai hartako alde..., kongregaziño erlijioso danak eukien disziplina eta gauza horreik, ezta. Gero represiño..., adibidez represiño sexuala inportantia zan, ez. Gero ez oskuen ixten urteten leku jakin batzuetatik, debekatuta geuken ba... Ni akordetan naz gu zigortu eiñ izan gauela baloiek salto eiñ sasittik bestaldera eta sasixen bestaldera pasau baloia hartzen eta ikusi eta zigortu. Zigorrak izaten zien oso zerak.

Nota bat eukitten gauen, astero-astero eukitten gittuen notak, eta nota bat izeten zan "Conducta" deiketan utsiena. Conducta lau, suspenso, horretxegatik bakarrik. Eta zentzu horretan oso estriktuak zien eta oso gogorrak. Baiña bestela erakutsi tta ondo.

- Zigor fisikorik eta?

- Sekula ez, sekula be ez, holakoik ez. Iñoiz ikutu be ez. Guri horretan, uste dot garai hartarako nahiko aurreratuak zirela.

15. Aretxabaletara itzuli zenekoa

- **Erref:** ARE-033/016
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:44:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Zortzi urte zituenetik Aretxabaletako giroa ezin izan zuen ondo ezagutu. Eskoriatzako marianistak ere oso diziplina zorrotzekoak ziren. Bere kaleko kuadrilla ez zuen benetan ezagutu Zaragozatik itzuli zen arte. Aozaratzako lagunekin umetatik izan du harreman ona.</p>

Transkripzioa

- Zuk bastante urte pasatu zittun Atxabaletatik kanpo. Igarketan zebeñ aldaketarik Zaragozara fanda hillabete batzuk etorri barik egonda?
- Bueno, niri pasau jatena, herrixakin berakin pasau jatena, herrixan bertan denpora gutxi bizi izan nazela. Ni bizi izan naz auzuen, Azatzen. Azatzen bizi izan naz zortzi urte arte jarraixan eten barik, bertatik urten barik. Gero, klaro, urtebete Donostian, gero beste urtebete barriro Azatzen maristetara fan da etorri, bueno. Urtebete. Gero ia horra fanda, baiña karo, hortik ez geuen urteten. Hor disziplina zan benetakue. Gu hamaika urtekin ba nik etxera etorteko baimena eskatu bihar izaten neuen eta urtien itxiko ustien igual xei bider edo zortzi bider etxera etorten. Akordetan naz Andra Maixetan baimena emoten oskuen eguerdixen bazkaitten etorteko eta atsaldien ba ez dakit xeiretarako edo xei terdietarako edo hola barriro komentura fan biher izeten gauen.
- Hori Eskoriatzan bertan?
- Eskoriatzan bertan, bai. Hamaika-hamabi urtekin ia hori ein biher izeten gauen. Eta ni akordetan naz egoten zan, errosaixue egoten zan, eztakit zazpirek ero, errosaixue erreza biher izeten zan afaitten fan aurretik. Eta nik orduen tranpatxo bat eitten nutsen.
- Egunero?
- Ez, ez baimena neukanetan. Baimena neuken egunetan xeiretarako fan biharrien taldiakin elixara sartzeko, errosaixue errezetan nik eitten nauen zazpiretan fan eta korutik bueltan sartzen nintzen, atzetik bueltan, eta gero handik urteten nauen eta sartzen nintzen barrura eta hola. Tranpie eitten nutsien horretan, baiñe oso estriktuek zien horretan. Eta, klaro, nik neure edadeko lagunek ezautu eitten nittuen, agurtu eitten giñen eta juntetan gintzenien ibili alkarrekin, baiña karo, esperientzia gutxi euki nauen, kontakto oso esporadikuak, oso noxien behiñekuek eurakin. Eta gero bueltan etorri nintzenien etxera izen zan benetan neure kuadrillie ezautu neuen. Hori kalekuek. Auzuen bai. Auzoko lagunekin ia harremana ume-umetatik eta oinddio be manteniduten dot, ez, harremana oso ona.

16. Auzoak berdin jarraitzen zuen; industriaren hasiera

- **Erref:** ARE-033/017
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:44:37. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak

Laburpena:

Etxera itzuli eta gero, auzoan ez zuen aparteko eboluziorik nabaritu. Urte osoko zikloari atxikita jarraitzen zuten baserritarrek; aldaketak geroago etorriko ziren. ULGOR eta ARRASATE kooperatibak hasita zeuden Xabier itzuli zenerako. Beroa aluminioan, Zubia giltzatan eta Iturbe eta Agirretarren galdategiek lanean ziharduten. Gaur egun, lantegi horietako batzuk itxita daude. Tubos reunidos ere gogoratzen du, zeinek beste tailer batzuekin elkartuta, Unión Cerrajera sortu zuen.

Transkripzioa

- Karo, auzuen eboluziño haundirik garai haretan ez zan egon, nik uste.

Orduen bizimodue nahiko oiñarrittute euen eta zan ba urte guztiko ziklo hori eitten zan, basarrixetan bereziki ba basarrixek berak eraitten auen eta nik uste dot sasoi bakotxaiei eitten ziela beti gauza berdintsuek eta. Geruao ia hasi zan aldaketa oso bapatien.

- Eta zu zeu nolabait Atxabaletara itzuli zinanetik, lelengo hamar-hamabost urtietan zein aldaketa daukazu gehixen goguan.

- Bueno, aldaketa alderdi fisikotik esan daigun ondio sasoi horretan ez zan egon hemen aldaketa haundirik. Ze esango dotsut, igual futbol-kanpo barrixa in zala edo holako gauzan batzuk.

- Izango zan fabrikak eta hasten zien zera, ezta?

- Bai, bueno, fabrikak, Atxabaletan, Copreci hasiko zan. Enaz akordetan ze urtetan ondio. Copreci ondio oso txikiñe izengo zan.

- Hona etorri ziñanien bape kooperatibarik baeuen?

- Bai, ordurako ia hasitta eozen. Bai. Ulgor, Ulgor eta Arrasate. Ulgor eta Arrasate izengo zien ordurako indde euzenak.

- Eta beste ze industria euen bertakua?

- Bueno, Atxabaletan euzen ba Beroana, Zubianekue, Beroanien aluminiue eitten auen lana, gero Zubianien giltzak, gero Iturben fundiziñue, gero hemen honek Agirretarrak be baeukien beste fundiziño txiki bat herrixen bertan barruen. Bueno, gero hola taller txiki-txikitxuek ba, famelixako taillertxuek eta baeuzen ezta, baiña.

- Aittatu dittuzun fabrika horreik jarraiketan daue ala ia ez dia...?

- Ba Zubiena ointxe uste dot fan dan astien edo hamabost egun dala edo ia definitiboki itxi eiñ da, uste dot. Hogeta hamaika langille ointxe uste dot langabeziara fan diela, bai.

- ERE baten bidez-edo?

- Ez, ez, itxi ein dala lantegixa. Ez dakit exaktamente ze formula erabilli dauen baiña uste dot itxi ein da. Bueno, hori saldute euen, parte haundi bat behintzet saldute euen beste kanpoko enpresa bati.

- Hori da Azbe?

- Azbe, bai. Bueno, guk Zubiena. Gero Beroa aspaldi itxi zan, oiñ hor ikastolie dagon lekuan. Hor egon zan beste fabrika hori Beroana. Da taillerrik haundixenak Atxabaletan..., a, bueno, gero Tubosekua be bai, Tubos han behien. Hori Zerrajerako, Zerrajerien zera zan. Zerrajerien hasera.

- Hondarrak?

- Ez, aldrebes, Zerrajerien hasierie. Hasierako zerrajerie izen zan "Unión Cerrajera". Horrek bildu ein zien bi edo hiru lanegi, eta bat zan hori, Tubos, Tubos Reunidos uste dot zala. Taillertxo bat dezentie, dezente haundixe zan, eta gero horrek be jarraitu euen lanien, baiña gero Zerrajerie fundau zan Arrasaten hortik hasitta. Hortik eta Bergarako Bergarajauregi, Bergarajauregitarrak eta. Bi edo hiru tailler bildu zien eta horreik eiñ auen Unión Cerrajera de Mondragón.

- Tubos Reunidos itxita dago?

- Bai, oiñ nik uste dot hor ez dauela aktibidadeik.

17. Behi zaintzan ari zela behiak dotrina jan

- **Erref:** ARE-033/021
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 00:52:53. **Bukatu:** 00:58:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gogoan du behin eskolako etxeko lana kredoa buruz ikastea zela. Merienda eta dotrinarekin joan zen behiak zaintzera. Bera jolasean zela, konturatu orduko, behi batek ogitartekoa eta dotrina jan zizkion. Hurrengo egunean eskolan maistrak kredoa galdetu zien, eta bere aurretikoek inork ere ez zuen kreda hori osorik ikasi. Xabierren txanda iritsi zenean, "Es que la vaca me ha comido el catecismo" aitortu egin behar izan zuen. Mutikoen artean, behizaintza arte bat bezala hartzen zuten. Behizain ona izatea harrotzekoa zen auzoko mutikoentzako. Abestuz eta txantxetan, bata besteari esaten zion behiok arto edo arbi sorora sartu bazitzaizkion.</p>

Transkripzioa

-Historixak egongo die bat baiño gehixao. Bat dauket eskolakue, eskolan pasau jaten bat. Ni eskolan ikasten ona izan nintzen beti, buru onekua eta memorixa ona. Eta maistriek ba, ia ez zan Esuperancia, beste maistra bat zan. Beti eukitten nindduen apur bat eredu moduen, ez. Eta behiñ akordetan naz katezismue guri abadiak ez oskun emuten, emuten oskun maistriek. Eta katezismuen kredue ikesi bihar geuen, eta kredue katezismuen akordetan naz euela ezkerkoaldera, zabaldu eta ezkerrekaldien Velazquezen Kristo hori, ezkerreko aldien kredue ta, orrixe pasau pagina erdi edo hola ta kredua gero be. Ta egun baten kredue ikesten ibili gintzen apur bat eskolan baiña bueno. Etxeko lana bixarko kredue buruz ikesitta ekarri. Katezismue hartu ta etxera. Ta betiko moduen hartu ogi erregutada bat txokolate ontza bategaz eta behiak hartu ta beheko zelaire, akordetan naz. Ta Beheko Zelain ba barrenien euen Olatza errekie, eta han errekan holako pasabidetxo bat eindde euen gaztaiña enpor haundi bategaz, hola presatxo bat moduen eitten auen da baztarretan lokatzarie ta egoten zan, harrixek eta. Ni injenieritza obrak itten han errekan, denporie pasetan. Itxi neuen katezismue ta bokadillue itxie neuen arbola-ipurdi baten, sagar-arbola baten ipurdixen. Ta han ibili nintzen jolasien, eta holakon baten ba gosie eingo jaten eta, joño, bokadilluen bila fan bihe juat. Faten naz, mobiduten naz eta, mekauben!, justo ikusi nauenien bokadillue, behi batek raust! ogixorri eta katezismuai eta danai ebatu utsen, eta klaro, neu mobiduten ez nenguen hara eta behixek dzi!, behixek igesi iñ usten. Eta ikusi neuenien behixek katezismue ahuen eukela, hain geratu nintzen paralizaute, inpresionaute, geratu nintzen paralizaute. Mekauben, nire katezismue behixek. Ze ein bihe juat nik oiñ! Enintzen ezta behixangana fan be eiñ. Geratu nintzen jota zer eiñ enekixela. Behixorrek jarraitu auen eta nunbaitten apurtuko auen edo bota eingo euen edo iruntsi eingo euen, eztakitt. Bueno, oin ze ein biha juat nik! Merixendiagatik ez osten asko inporta baiñe katezismue bape be ikesi barik kredue. Fan nintzen etxera, ixilik, etxien ezer esan barik. Hurrengo goxien kriston arduriagaz eskolara. Eskolara faten naz eta, klaro, leziñue luzie zan eta zaille. Hasi zan deike banan-banan, bere pupitre ondora fan eta kreduoi hasi batek eta trapa-trapa-trapa, eta aillegeten zan lekuren bateraiño eta ba gehixao ez zekixen edo trabatu eitten zan da. No sabes más? No, eta. Ala, zutik han. Beste bat, eta bale, eta beste bat eta. Danak illeran, iñok be ez zekixen buruz katezismue. Eta maistriek ni gordeta nindduen azkenengo, eztakitzu, demostrau guran ikesi leikela. Nik ikusten nauen zer datorren eta, jo!, ni han, puu!, jota pasaute. Halakon baten tokau jaten neuri, azkena, benga, illaran jarri azkena eta. Akordau eitten naz, dauket ondio buruen sartute: "Jabiartxo, díles a estos el credo". Holaxe. "Díles a estos el credo". Ni burumakur ixil-ixilik. "Benga,

Jabiertxo!". Jabiertxo ixilik. "Pero tú tampoco sabes?". "No, señorita". "Cómo que no sabes, que te ha pasado?" Klaro, ez auen entendiduten, auen pentsetan nik ezin neuenik jakin. Nik egixa esan biher. "Es que la vaca me ha comido el catesismo". Hango barrealgarie danak! Klaro, orduen...

-Hori zer zan, auzoko eskolan?

-Auzoko eskolan. Ba euko nittuen zazpi urte edo, xei-zazpi. Klaro, orduen ganauzaiñ eittie zan gure artien ba mutikuen artie zan, klaro, ganauek ondo zainketie eta iñon zelaira edo solora ez fatie ta. Artuek harrapetan bakizu ganauek ibiltten zien da. Ganauzain ondo eittie izeten zan ba danon zera, ezta. Eta, klaro, gaiñera geunken kantu bat, geunken guk bata bestiei kantetan guntsena, Libiri ta Labero: "Libiri ta Labero kaka-ganauzaiñek, kaka-ganauzaiñek, -eztakit ba- zelaiko ganauek artua gure aiñe, artua gure aiñe..." Bai ba, arto jaten edo ikusten bazauen baten bati igesi ein utsela arto sailera ba "artue guraiñe" edo arbixa guraiñe" edo gure dana, ez.

-Hori ze egiten zeuen, kantau?

-Kantau, ganauek baten bati iges eitten bautsen. Alkar ikusi eitten gauen, zela bakotxa bere zelaixen ibiltten zan, bagekixen zeñ zeñena zan, saille zeñena zien, eta orduen ba baten bati behin batek igesi eitten bautsen arto-saillera, orduen alanbreik eta ez euen, zelaixek zabalik egoten zien gehixenak. Eta orduen ba kantau eitten guntsen bata bestiai, adarra jotzen. Eta hori izeten zan ba gure artien zer bat, eta klaro, eskolan danen aurrien esan biher, gaiñera memorixa onena eukenak: "es que la vaca me ha comido el catesismo" ba bueno, ha izen zan...

-Eta señoritiak zer esan euen?

-Bere katezismue hartu, bota auen amorruez. Uste dot zigortute euki giñuela danok urten barik, eztaikit, ordubete gehixao edo holakon bat.

18. Ikasketak erdaraz eta buruz

- **Erref:** ARE-033/022
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:58:24. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Dotrina nahiz geografia edo historia erdaraz eta buruz ikasten zituzten. Maistrarekin ikasi zuten dotrina. Abadeek dotrina euskaraz irakasten omen zuten eskoletan.</p>

Transkripzioa

- Dotriñia ikastia ze izeten zan? Zenbat denpora gastaiten euen maistrak dotriñia erakusten?

- Beste asignatura askon moduen. Bai. Orduen ze ikasten aeuen ba, Geografixe buruz. Ikasi "los cabos", buruz, "los ríos", buruz, "no se qué", ikasi, nun euen ezakit zer, eta gero munduko naziñuek eta hiriburuek eta holakotxe gauzak. Hisorixie be iguel zan, ba buruz igestie eztaikit zenbat errege eta badaki zenbat zer eta los Alanos noiz etorri ziela eta bestiek fan ziela eta. Edade hortan be gaiñera asko be gehixao ezin. Dotriñie zan bat gehixao, bai. Geuk ez gauen euki dotriñiekin bereziki zerik. Ikesi bai, ikesi danok ikesi bihar izen gauen. Ha be buruz praktikamente. Erderaz da buruz ikesi. Guri dotriñie erderaz erakutsi oskuen, hori bai. Ze orduen beste auzo batzuetan abadiak emuten auen dotriñie eta euskeraz erakusten auen.

Baiñe guri erderaz erakutsi oskuen. Gero kontuek eitten.
- Katezismua behixak.
- Jo, ha izen zan, niri etxaten ahaztu hori. Hori geratu jaten grabaute bizi guztirako.

19. Garia jotzeko makina ikusteko grina

- **Erref:** ARE-034/001
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Makina baserriz baserri mugitzen zen. Egileor baserrikoek garia jo zuten, eta hantxe zegoen makina. Bila joan behar zuten, Aretxabaleta kalera; idiekin joan ziren osaba eta. Bera mutikoa zen, eta makina ikusteko irrikan zegoen. Gautu zen, eta makina falta. Bidera irten zen, isilpean. Iturrira bidali zuten ur bila, ilunetan, zigor moduan.</p>

Transkripzioa

-Gari-jotia eitten zan, esan doun moduan, auzolanian, ezta, eta parte zien baserrixetatik bakotxetik bana, persona bana edo etorten zan lagunketan garijotia eitten basarri bakotxera eta gero norbera be fan biher izeten zan bestietara.

-Eta makiñia?

-Makiñie mobiduten zan basarri batetik bestera.

-Basarririk basarri.

-Eta akordetan naz urte hartan hemengo Atxabaletako kaleko Egillior basarrikuek garixa jo auela gure aurretik. Egilleorretik ekarri bihe zan makinia gurera garixa joteko. Zan Ajuria makiñak, hamen Bitorixan eitten zien makiñak. Ta gauza haundixak ez zien /etzien/ harek makiñak baiña fan bihar izeten euen ba, klaro, Atxabaletatik kaletik harek makiñak goraiño jasoteko, ba eztatik, bi ero hiru iri paregaz etorri zien Egilleorrera makiñatan. Eta makiña horregaz gorutze. Ta, klaro, niretako eta nik uste gure edadeko mutiko danendako, ume danendako ba makinie baserrire etorten zanian hori zan herriko jaixen moduen. Nobedade bat izugarrixe eta ha ikustia makiñie martxan eta, ataraten auen zaratie ta zera ta. Ta orduan ba desietan hori makiñioi noiz etorren. Eta atsaldien fan zien nire osaba bi edo behixek hartu ta beste auzoko besten baten laguntziakin ba irixokin hara. Ta, mekauben, atsaldie pasetan zan eta illunkarie aillegau te ez zien /etzien/ agiri, ez zien /etzien/ agiri eta nik makiñie derrior ikusi biher. Eta ez neuen /eneuen/ ogera fatie gura, akordetan naz. Eta halakon baten aittajaunek esan usten, ala!, berandu da ta uhera. Uhera sartu nintzen baiña ezin lorik eiñ. Halako baten ixil-ixilik inoi ezebe esan barik, jaiki, jantzi erropak, tta-tta-tta urten eta bidian behera aber makiñie topetan, ikusten neben. Eta akordetan naz Otalazelai gaiñien trill ein gauela. Orduantxe ya aldapie gora igoten eta. Klaro, nire osabak han: "Mutikoa!, zer eitten dok hemen!?" "Makinie ikusten etorri naz". Orduko ya gabeko hamarrak edo igual izengo zien eta, klaro, garai hartan gabeko hamarrak zien ya, bueno... Eta bueno, azkenien tiuekin etorri nitzen, tiok

hasarren bat ingo ustien baiña bueno. Aillegau nintzen etxera eta ordureko ez dakit ba tia edo aittajaun-amandria edo baten bat konturetu zan falta nintzela. Klaro, sustau zien eta larritute. Eta, klaro, aittajaune-amandriek euzen hasarre. Etorri nintzen: "Ze iñ dok mutikuorrek, nora fan haz?" "Makinie ikustie gure neuen eta fan naz topetan, eta eztakit zer, badakit zer" "Ibiltteko gogue daukek?", aittajaunek. Hartu marmitta haundi bat eta Beheko Zelai [esaten jakon] lekuen euan itturri bat, metal-ure eukena gaiñera. "Fan behera, ekarri marmitte bete ur". Fan nintzen illunetan, fan eta marmittoi bete, ekarri, hartu marmittie, braaaau! bota ta: "benga beste buelta bat!". "Aittajaune, baiña zenbat...? eta "Zazpi buelta ein bihittuk!" (Barreak). Bigarren bueltie...., hirugarrenien edo parkatu ein usten. -Hiru buelta egin bihar izan ziñun? -Bai, bi edo hiru erain usten. Klaro, euen oso larritute, eurek be larrittu eingo zien, seguru. Umie, ni orduen izango nintzen ba, zortzi urte baiño gutxiao eukiko nittuan.

20. "Tio Cabañas"

- **Erref:** ARE-034/003
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:03:39. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan, nagusiagoak beldurra sartzen egoten ziren. "Tio Cabañas" basotik etorriko zela esaten zieten.</p>

Transkripzioa

-Eskolakue akordetan naz ume txikitxue nintzela nausixauek ibiltten ziela guri billurre sartzen, eta hartzen euen egurren batekin erropan batzuk txintxiliska ipiñi eta, uuu!, billurre emuten eta hori. Eta esaten uskuen: "Tio Cabañas etorri bihok, Tio Cabañas! Harek eruango zaue basora; ez dakit zer." Eta gu ume txikiñak billurrez ihesi ta.

-Tio Cabañas?

-Tio Cabañas, bai. Zan ba Basajaunen moduen edo ez dakizu, basuen bizi zan personaje mitiko moduko bat. Tio Cabañas zan. Auzuan hola zan. Eta nausixenak hola ibiltten jakun beti errekreuetan eta hola. Eta gu billurtute beti. Ume txikiñek gitzela, bai. Hori be izeten zan gaiñera hola epoka baten izeten zan: Baiña urtero-urtero zeremonixa berdiña errepikatzen zan, e. Hurrengo txikixenai.

-Eta gero zeuek be egin zotsen.

-Bai, klaro, gu nausixauek gitzenien bestiei eitten.

21. Marianisten eskolak, doan

- **Erref:** ARE-034/006
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:05:04. **Bukatu:** 00:07:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolak doan ziren fraidegaientzat. Hirutik bat fraide geratzen zen. Aldaketak nola hasi ziren, estatutu berriak noiz egin zituzten marianistek. Mutikoek "usted"-ka hitz egiten zioten elkarri, frantsesaren eragine segurunez. Erabiltzen zuten uniformea nolakoa zen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Eskola horrek ordaindu egin beharko zien ba?

-Ez, ez.

-Marianistena debalde zan?

-Bai, bai. Klaro, Gu fraillegaixen moduen gutzen.

-Kaptaziño modura?

-Bai. Fraillegai gitzen gu han. Gure garaira arte faten zienetatik igual hirutik bat edo geratu eingo zien. Fraille ia definitibo botuek ein eta eskolak [emuten]. Eta nik uste hortxe geure garaixen hasi zala ya, erlijioñuen inguruen hasi zien Konzilio Vaticanuen zerak eta. Lelengo Vatikaue, e. Eta ya ba ni akordetan naz marianistak eurak be euren estatutuek eta aldatu ein zittuela, eta geu be ibilli gitzen estatutu barrixek leiduten eta ikesten eta holako gauzak itten eta. Eta guk adibidez geuken geure artien nahiz eta mutiko txikixak izen, bata bestiei "de usted" berba ein biher izeten gutsen.

-Zeuen artian?

-Bai, hori gehixen be izengo zan euren fundadorie frantsesa zalako, ta hona etorri zien lelengo frailliek frantsesak zien, eta nik uste dot eurak gazteleraz eitten euenien be "usted" erabilliko euela. Klaro, frantseseko "vous" usted-era traduziduko euela, eta gero hemenguek be ohittura horri jarraitu igual ez, baiña... Guri hamaika urtekin ya alkarren artian bata bestiai usted erabilli bihar izeten gutsen. Erderaz, bai. Trajie jantzitta, trajia geuken, gaiñera hola txaketa kruzaue, lau botoikue. Hori zan reglamentario, e! Fraka motza baltza, traje baltza, jerse grise, eta alkondarie zurixe. Eta hori zan geuken uniforme ixte bakarra. Beti..., txaketie kanpora urteteko bakarrik edo, baiñe eguneroko erropia. Bakotxak eukitten geuen erropie markaute geure numeruaz eta hori,

22. Ezin elkarren aurrean biluztu

- **Erref:** ARE-034/007
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:07:11. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Nola egiten zuten lo fraidegai zegoela. Ohera sartzeko, ezin zituzten galtzak sartu argia kendu arte. Kamiseta eta galtzontziloak jantzita egiten

zuten lo. Goizean ilunpetan janzten zituzten galtzak. Mirakontxan urtebete eginda, bitan joan ziren hondartzara, eta kamisetarekin bainatu ziren.</p>

Transkripzioa

-Gero frailletan han adibidez reglamentua zela zan, ez. Gabien lo eitten gauen dormitorixo baten, danok hola dormitorixo bakar baten, ez, sala haundi bat, egoten zien illeretan ohiek ifinita ta egurrezko zer batzuk, bittartietan egurrezko barandilla moduko batzuk ifinita. Eta, klaro, orduen adibidez ba kastidadia ta horrek gauzok zien birtute garrantzitsuak, ez, eta, klaro, umiek ba egoten giñen erabat kontrolaute eta zertute, ez; eta erropak ohera sartzeko, erropak kendu ahal izeten gauen bakarrik alkondararaiño, frakie ezin izeten geuen kendu argixa itxungi arte. Argixa itxungitte gero frakak kendu, ixten gittuen ohe barrenien eta ohera sartzen giñen kamisetia eta kaltzontzilluaz. Hori zan, gaiñera, norma. Eta hurrengo goxien tinbrie jotzen euenien argixa ixotu barik jaiki biher izeten gauen, frakak jantzi eta danok ohe onduen zutik. Eukitten geuen hortarako minutu bi edo hiru edo emuten oskuen. Eta hori itten zanien argixak ixoketan zittuen, bentanak zabaldu, eta gero ia garbittu. Gero garbittu biher izeten gauen, kamisetiaz, e, kamisetia aldiari zala. Hori ezin gauen kendu bestien aurrian. Bueno! Horrekin akordetan naz detaille bat, ez frailliekin baiñe monjakin, esan dotsut lehen Donostian egon nitzela, Mirakontxan egonda urtebete osuen bi bider eruen giñuen hondartzara eta bixetan kamisetiakin baiñau biher izen giñen (Barreak). Zela zien gauzak orduan, e. Bueno ba maristetan be ein biher izeten gauen hola, eta pentsaizu zenbateraiño zan ba orduen, klaro, mutiko arteko balizko harremanik balego be, ba hori oso erabat gaitzetsita eukien eurak, eta akordetan naz behin bi mutiko geure kidiak zienak ba auskalo zegatik sartu zien bixek ohe baten. Ba tontuena itten edo jolasien edo. Topau zittuen eta bixek automatikamente etxera. Eta nik ez dakit izengo zan, guk orduen ez geuen ulertu zegatik eta ezebe baiña igual homosexualidadie ebitetearren edo nik ez dakit zegatik izengo zan, baiña holako zeren bat. Ta estriktue zan oso-oso mailla horretan. Orduen ba horrek gauzok eukien erabat arautute eta alkarren aurrien ezin gauen billostu ta, ezta gutxiaorik be, vamos.

23. Fraidegaien garbiketak

- **Erref:** ARE-034/009
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Fregadera batean txorrotak zeuden, eta hantxe garbitzen ziren. Lepoa, burua eta hortzak garbitzen zituzten. Dutxatu, astean behin. Lehenengo aldiz besteen aurrean kamiseta gabe noiz dutxatu zen. Etxera bueltatzean, zaila egin zitzaion emakumeekin harreman normala izatea.</p>

Transkripzioa

-Eukitten gauen oso kontauta minutuek eta. Eta eukitten gauen holako

fregadera, zan hojalatazko zer bat, fregadera moduko korrido bat, txorrotak ifinita hola, eta fan bihar izeten giñen jaboiaz, agiñek garbiketako zepilluaz, eta hara fan, busti burue ta leporaiño dana, jaboia emun, garbittu, baiñe burua eta lepua eta hau. Dutxia astian behiñ edo, obligatorixua hori be, eta agiñek garbittu, hori be bai, zepilluaz agiñek garbittu.

-Eta dutxan zelan sartzen ziñein, erropakin sartu eta bertan?

-Banan-banan. Aldiko batzuk faten zien eta bakotxak bere dutxia. Bueno, pentsaizu, izengo zan hamaxei urte neukela, hamazazpikin, ez dakit, Zaragozatik etorri ein nitzen hona Eskorietzara behin egun batzuk pasetan edo ez dakit zegatik, ekarri ein giñuen, eta ordureko ya hasitta euzen horrek gauzok aldaketan, eta akordetan naz dutxia esan dozunian, lelengoko aldiz beste batzun aurrian kamiseta barik dutxau beste norbaittek ikusteko moduan hola, orduantxe eingo giñela lelengo aldiz.

-Baiña han edo etxian?

-Ez, ez, fraillietan. Gero ya ba etxera etorri nintzenien ba ya nik uste dot ein gauela holako terapia edo autoterapia, ohittuta gengozen, ezta, arazuak konpondu eitten zien konpondu bihe zielako eta ya está, ez. Baiña hori adibidez niretako izan zan zailtasun bat etxera etorritta gero, ta neskakin harremanak eukittek ta; bape be euki barik gengozen, neskak-eta agurtu justu-justu urriñetik. Ezauketan nittun neskak neure lagunak zienak, vamos, umetako lagunak zienak.

24. Botoak berritu ez

- **Erref:** ARE-034/010
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:19. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Elorrion kastidade eta obedientzia botoak egin zituzten. 17 urte arte egon zen han, eta gero Zaragozara joan zen. Hurrengo urtean ez zituen botoak berritu. Urtebeterako balio zuten botoek, hasieran. Etxera joatea erabaki zuen.</p>

Transkripzioa

-Zuk Elorrixon esan dozu egin zeela kastidade botua.

-Bai, bueno.

-Kastidadia eta bestia zela zan?

-Bestia zan "obediencia", bai. Obedientzia eta kastidadia. Baiñe oso ondo ez gekixen zer zan be hori, e. Ze hamaike urtekin eta hamaxeikin eta hamazazpikin igual-igual, e. Ez geuen ezer aldatu.

-Zenbat urtekin egon ziñan Elorrixon?

-Ba Elorrixon hamazpi arte. Hamazazpi ein barik fan gitzen ya Zaragozara.

-Eta botuok emon zittuein azkenengo zerian?

-Elorrixon in gittuen, bai. Hamazazpi kunplidu aurreti.

-Hamasei urtekin?

-Bai. Eta gero Zaragozan nik uste ya ez nittuen renobau. Hurrengo urtien renobau ein biha zien, hori zan urtebeterako botuek, e. Lenengo eitten zien urtebeterako bi aldiz edo hiru aldiz. Eta gero ya azkenengua izeten zan,

hirugarrenien edo laugarrenien ya definitibuak eitten zien, bizi guztirako.
-Botuak urtebeterako?
-Bai. Hasieran bai.
-Kadukau eitten zien.
-Bai. Yogurren moduen.
-Eta bigarren aldiz ez zebein ein?
-Ez. ya izen zan ba hori. Ya bueltak emuten hasi giñan eta, neskatiñak ikusten eta begiraketan eta hola eta. Aukeria egin gauen etxera etorteko.

25. Auto gutxi lehen, errepideetan

- **Erref:** ARE-034/011
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:13:39. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>25 pezeta eman zizkioten Gasteiztik etxera joateko. Dirua galdu zuen bidean, eta Aretxabaletako batek ordaindu zion autobusa. Auto gutxi zebilen errepideetan. Futboleko Errotabarriko bide bazterrean egiten zuten umetan. Bergaresa pasatzen zen, eta ikatza garraiatzen ibiltzen zen Garitano. Apartatu egiten ziren orduan. Koruetan esnedun zebilena, Patxi; jendea eramaten zuen automobilean, bueltan. Gasolina usaina hartzera hurbiltzen ziren mutikoak.</p>

Transkripzioa

-Gero etxera etorteko emun ustien dirue, billete Bitorixaraiño pagau ustien, eta Bitorixatik etxera etorteko emun ustien, hogeta bost pezeta uste dot ziela. Hogeta bost pezeta uste dot emunustiela, dana itteko uste dot izengo zala orduan. Eta ez dakit dirue galdu ein naban edo lapurtu ein ustien trenien edo hola, eta ailegau nitzen Bitorixara eta aiba!, dirurik ez. Eta Aretxabaletako norbait ikusi nauen han autobusen geltokixan edo ta haretzek autobuse pagau usten eta etxeraiño etorri nitzen.
-Auto stopik eta ez zan oindio egingo.
-Ya-ya, keba, ondio ez euan ohituraik auto stop eitteko. Bueno, automobilek be banakia orduen, banakia. Guk, pentsaizu, Sorbonan gebitzela, ba orduen ya neuken hamar urte, beratzi-hamar urte, fubolien eitten gauen Errotabarriko kamiñuen errebueltan. Errotabarri, bat bertakua zan eta baloia berak eukitte eban han eta, eurok oso futbolzaliekie zien familixa dana ta, baloia eukitten eban eta. Errebuelte hola, kamiñue, eta kamiñuen jersiakin porterixak eiñ eta kamiñuen bertan fubolien ibiltten gitzen. Eta, klaro, pasatzen zien Vergaresie, Idarreta zan orduen Vergaresie, Bergarako Altos Hornosera iketz-karriuan ibiltten zan Garitano, eta beste holakotxe kotxe galduren bat noxian behin pasauko zan. Bagekixen noiz etorri bihar zien automoillek. Eta entzun be eitten gittuen urriñetik. Baten bat etortzen zaniene jersiok apartau, kamioia pasetan ikusi eta buelta.
--Eta ala!, fubolera atzera.
-Auzuen euen, Koruetan, gu azatzakuak eta aurrerago Korueta, eta Koruetan euen letxero Patxi, haak euen Forrotxo edo deiketan zan kotxetxo bat euen eta gero beste erdi autobus moduko traste bat erosi euen, eta ahrek eiten euen esniek ekarri, inguruko baserritar askok emute

utsien esnie berari; bueno, berari tte Etxazluzekuai be bai, Etxaluzekue ibilli zan astuaz esniek ekarten holako karrotxo bateaz eta astuaz. Gero harek itxi utsanien Patxik jarraitu auen; Patxi aurretik be bai baiña harek bueltan kalera etorten zan jentie errekauek eitten, bueltan gorutze jasoten euen bere autoboiillien. Baiña akordetan naz ni ume txikiñek gitzela Patxi pasetan zanian kaletik bueltan, gu takarraran faten gitzen kamiño ondora automoiilek botaten euen usaiña hartzen, gasoliña usaiña.

Zegatik?

-Ba nobedadia. Baakiz. Orduen bizi giñen bedar artian baiña. Ha gasoliniak botaten auen usaiña. (Barreak) Zelako gauzak.

-Kotxian keiai usaiñ eittera, e.

-Seguruenik keia botako auen, klaro. Baiña ha guretako zan nobedade bat

26. Umetako ibilerak

- **Erref:** ARE-034/012
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Umetako ibilerak. Karramarroak eta txoriak harrapatzen ibiltzen ziren. Ezkailuak. Gaztainak. Kaletik zetozenei sustoak ematen ibiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Ba txori ikesten eta. Zerak harrapetan, ezkailluek harrapetan, anborraiñek harrapetan, kangrejotan, gero baten baten baserrira fan...
- Kangrejuek eta anborraiñak eozenian.
- Bai, bai, orduen anborraiñak-eta egoten zien. Hemen Urkuluko errekan eta anborrain dezente egoten zan. Olatzan gehixao egoten zan kangrejue ta. Berutze ya sarbuek eta ezkailluek-eta egoten zien. Gaztaiñak eta, gaztaiñak jan eta, holaxe ibiltten gitzen. Juntau, jolasien ibili; gero kaletik etorten zienei sustuek emuten kamiño baztarretik. Holaxe. Umekerixak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com